# Hileta Ataunen

Txillardegi

Ni neu ere han izan nintzen Santomas egunean, Ataunen ; eta hantxe agurtu nuen Aita Barandiaran. Jende asko «Sara» etxearen inguruetan, gure sustrai zaharren ikertzaile nekagaitzak merezi zuen bezala. Gure herri hau erdalkerian eta sasi-unibertsalismotan gesaltzen zaigun kinka larri honetan, On Joxe Mielek gure jatorri berezi horren bila erabili baitzuen bizia ; Euskal Herria *bestelako* herri bat dela funtsatu nahiz. Aita Barandiaran ez zen Hegoaldeko gizona : Ataungo bere bizileku berriari, Lapurdin urte luzeak pasa ondoren bere egindakoari, «Sara» zeritzon, gorago ere esan dugunez. Aita Barandiaranek ere, beste hamaika Euskaldunek bezala, erdipurdiko «deserrialdia» dastatu baitzuen.

Ez dagokigu guri etnologilariaren gradua neurtzea. Gaur eta hemen, apaiz *abertzalea* agurtu nahi dugu bereziki. Inoiz baino beharrezkoagoa baita hau egun hauetan ; euskal kulturaz eta euskal hizkuntza nazionalaz trufatzen diren beleak, Atauna agertzeko lotsa izpirik erakutsi ez dutelarik. Kondaira-aurrean zen aparta Aita Barandiaran: antzinako ohituren bilketan eta sineste zaharren azalpenean. Baina geroak ere kezkatzen zuen ; eta ofizialki gaitzetsia izan den «Korrika» famatuan ere agertzeko lotsa ez zen izan.

Aita Barandiaran ez zen hizkuntzalaria. Baina bidenabar bezala egindako bilketa-lana (eta magnetofonorik gabe burutua!) aski bide litzateke gure euskalarien artean kokatzeko. (Irakur, batez ere, Barandiaranen «Obras Completas» delakoen 2.liburukia, Bilbo 1973). Bostehun errialde mamitsu horietan badauka euskaltzaleak zer ikasirik eta zer ikerturik! Benetako harrobia.

Hots, katabu horren inguruan egun hauetan ikusi dugunak, areago erakutsi digu «politikari» profesional

> Aita Barandiarani bai, txalo eta ohore. Gure putre beltzei, listu eta laido.

batzuren lotsagaldukeria, Aita Barandiaranekiko errespetua baino. Zeren-eta, nola uler Atauna korrika, eta prentsa-foto bila, joandako batzuk, gaur berton, eta nabarmenki, *euskal kultura lurperatzeko oinarriak finkatzen ikustea?*

Goazen garbikiago mintzatzera. «Egunkaria»ri, «Euskadiren izenean», diru-laguntza ukatzen dioten traidore berberek, zer debru egiten zuten atzo «Sara»ko inguruetan? Euskal kulturaren aldeko ahalegin miresgarria den UEU itotzen saiatzen direnak, zer debru ari ziren Ataunen asteburu honetan? Euskal eskola Recalde eta Buesa anti-euskaldunen eskuetan jarri dutenak, soberan zeuden Ataunen ; gure begi-niniak adina maite dugun hizkuntza nazionala *urdeen bazka* bihurtua baitute behin eta berriz. Putre horiei ohea behin eta berriz prestatu dieten salduek, ez zuten atzo Ataunen ezer onik egiten. Gauza bakar bat bilatzen zuten paraje haietan : gure herri xehea *gezurtatzea*.

Aita Barandiarani egin dakiokeen gorazarre bakarra hauxe baita : euskal kulturari (eta euskal hizkuntzari bereziki, hortaz) *bizibideak zabaltzea ;* eta euskara gorroto duten inperialista arrotzei, berriz, *ehe epela* prestatu beharrean, *arbuio osoa* erakutsi.

Ataunen berriro ere mamitu den *fartsari*, hitz batez, *amaiera* eman behar zaio. Buesari gure eskolen eta irakaskuntza osoaren geroa erregalatu diotenek, txistu eta ttu egin dute On Joxe Mielen katabuan. Eta garaia da saldu hauei guk ere *aurpegira* ttu eta txistu eta karkaxa bota diezaiegun. Maroto eta Goikoetxea, ikurriñaz mozorroturik, aspaldian baitauzkate gainditurik.

Aita Barandiarani bai ; txalo eta ohore.
Gure putre beltzei, listu eta laido.

## LE BILLET de Marc Légasse

# Adio On Koxemiel

*C'ETAIT un savant. Tout le monde le sait. Ainsi qu'une sorte de clerc charismatique, mort presque «en odeur de sainteté». Ce qu'on sait moins, c'est que Koxemiel de Barandiaran était un être plein d'humour, maniant l'ironie érudite en un baroque mélange d'ethnologie, de préhistoire, d'archéologie, de linguistique ou de philosophie. Aussi ceux qui l'ont bien connu garderont-ils le souvenir d'un Koxemiel caustique et paradoxal, capable de soutenir les thèses les plus variées sur les thèmes les plus actuels. Je me souviens en particulier de la théorie qu'il exposa, lors d'un dîner, au lehendakari Agirre, selon laquelle l'incompatibilité entre le Basque et l'Etat était totale et héréditaire :*

*«- Jamais dans le folklore oral ou écrit, épars à travers nos sept provinces (expression spontanée des croyances populaires) on ne trouve mention d'une quelconque entité étatique ; et si l'on parle de roi ou de fils de roi, ils sont toujours anonymes d'on ne sait quel royaume. Le Basque a vécu et grandi si naturellement dans une telle ignorance ou insouciance de la notion d'Etat que parler d'«Etat basque» risque de le déboussoler. Instinctif contrebandier face aux douaniers ou carabiniers politiques, il est antiétatique ataviquement. Espagnols et Français le savent bien. Un peu surpris par ce discours, Agirre demanda alors :*

*- Mais, On Koxemiel, ne seriez-vous, par hasard, quelque peu anarchiste?*

*- Regardez ma soutane, lehendakari, elle est de la même couleur que leur drapeau ; mais à vrai dire, je serais plutôt anthropologiste.»*

*Ay On Koxemiel ! Y aura-t-il jamais d'autre Basque pour éclairer, au long d'un siècle d'existence, la conscience de ses compatriotes par la science de l'Homme?*



**Cette semaine Tartaro s'est étonné...**

**... qu'on présente la «jeune démocratie espagnole» comme le modèle dont s'inspirent les pays de l'Est : pas étonnant que, même après la perestroïka, on ait pu voir chez eux tant de goulags et autres lieux de torture!**

... que pour les Etats occidentaux, le plaisir de voir s'écrouler l'idéologie marxiste s'accompagne du déplaisir de voir s'écrouler l'empire soviétique. Ne craint-on pas certaines contagions?

**... que le vent de l'histoire ne souffle pas toujours dans le même sens : sur 12 apôtres, il y eut un traître et onze fidèles. En revanche, dans les 12 républiques de l'ex-Union soviétique, on compte un «fidèle» et onze «traîtres». Il est vrai que les uns et les autres n'ont pas suivi la même étoile!**

... qu'il ait fallu un vieillard centenaire (Antoine Pinay) pour déclarer à propos de l'Europe : «Plus on ira vite, mieux ça vaudra.» Il reste encore du chemin à parcourir pour les jouvenceaux qui nous gouvernent!

**... et réjoui du pertsu chanté par les enfants d'Ainhoa au micro d'une radio locale sur l'air de Jaun Kaputxin bizar handi :**

**«Golfan egin zuten gerla,**
**Sutan ezarri petrola,**
**Ixuri ere odola,**
**Dolarrez bete sakela.»**

... que Marie-France Garaud joue les Tartaro en déclarant : «Je croyais que Jacques Chirac était du marbre dont on fait les statues. En réalité, il est de cette faïence dont on fait les bidets.»

# Barandiaran menderen mendetan

■ Tous les Basques espéraient qu'On Koxemiel Barandiaran atteindrait sa 103ème année. Le patriarche de notre culture est mort le 21 décembre. Comme le rappelait Mikel Duvert pour ses cent ans, «Barandiaran est un phare de notre culture, il a traversé la science comme l'ont fait les plus grands savants des sciences expérimentales, ceux qui ont ouvert les portes de notre histoire présente...» Né à Ataún, l'infatigable chercheur en préhistoire et en ethnologie a vécu de 1936 à 1953, réfugié à Sare. La maison où il est décédé porte le nom de ce village. Aujourd'hui, à l'initiative d'Eusko Ikaskuntza une bourse porte son nom. Notre ami Mikel Duvert et l'association Lauburu en ont bénéficié pour réaliser un gigantesque travail qui fera date dans les recherches basques : «Contribution à l'étude ethnographique de la mort en Pays Basque Nord» bâti sur plus de 1 000 enquêtes faites dans les villages d'Iparralde. Il en sortira un livre prévu pour 1992.

# Libération de Mikel Iturriño

■ Arrêté le 18 mars 91, dans le cadre de l'incarcération de Josu Arkauz, il vient d'être libéré de la prison de Fresne. Bien que natif d'Ondarroa, il dispose de la citoyenneté française. Agé de 68 ans, Mikel Iturriño est assigné à résidence à Paris.

Notre couverture : On Koxemiel Barandiaran (photo Jose Mª Zabala).